

## Puntukako baimena

Helburua da berriro heztea eta gidariak sentsibilizatzeko eta berrezteko ikastaroak eginez gidari arau-hausleen jokabidea zuzentzea.

### 12 PUNTU

Hasierako esleipen orokorra.

### 8 PUNTU

Honako hauek lortzen dituzten gidari titularrak izan ezik:

- Gidabaimen edo gidalizentzia bat lehen aldiz.
- Baimena edo lizentzia berriro ere, puntu-esleipen osoa galdu ondoren.

Bi kasu horietan, bi urte pasatzen badira puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin gabe, **12 puntu** izatera pasatuko dira.

### HOBARIA

Puntuak kentzen dituen arau-hausterik egiten ez duten gidariak saritzeko.

8 PUNTU

→ **2 urte** puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin gabe.

12 PUNTU

→ **3 urte** puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin gabe.

14 PUNTU

→ **3 urte** puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin gabe.

15 PUNTU

Gidatze seguru eta efizienteko ikastaroak gainditzea, ezarritako baldintzak betez gero eta saldo positiboa izanez gero, bi puntu gehigarriekin sarituko da, gehienez hamabost puntu izan arte, eta mota bakoitzeko ikastaro bat gehienez bi urtez behin egin ahal izango da.

## Bide-berreziketako eta sentsibilizazioko ikastaroak

**Puntuak partzialki** berreskuratzeko **bi modu** daude:

- Gehienez **4 puntu**, 2 urtetik behin, **12 orduko ikastaro** baten bidez. (Gidari profesionalak urtean behin).
- 12 puntuak berreskuratuko dira, baldin eta **2 urtean ez bada puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin** (arau-hauste astunak edo oso astunak diren kontuan hartu gabe).
- **Puntuak guztiz berreskuratzeko, 20 orduko ikastaro bat** egin behar da, eta azterketa bat gainditu. Puntuak galdu direnetik gutxienez denbora hau igaro behar da:
  - **6 hilabete** (12 hilabete, puntu guztiak baimena berriro lortu ondorengo 3 urteetan galtzen badira).
  - **3 hilabete**, gidari profesionalentzat. (6 hilabete, berriro lortu ondorengo 3 urteetan berriz ere puntu guztiak galtzen badira).

## Puntuak kentzen dituzten arau-haustea

Puntu-kreditua gutxitzen joango da legeak jasotako arau-hauste astun edo oso astun bakoitzeko, baldin eta puntuak galtzea badakar.

Egun bakar batean **8 PUNTU** gal daitezke gehienez, arau-haustea oso astuna denean izan ezik, kasu horretan dagozkion puntuak galtzen baitira.

### EPAI JUDIZIAL BIDEZ GIDATZEKO BAIMENA KENTZEA

Epai judizial batek gidatzeko eskubidea kentzea agintzen badu, baimena berreskuratzeko **20 orduko ikastaroa** egin daiteke. Ikastaroa amaitzean, kondena aurretik zeukan saldoarekin lortuko da baimena, azterketa egin beharrik izan gabe, betiere gabetzea 2 urtetik gorakoa ez bada. Baimen gabetzeak 2 urte baino gehiago irauten badu, nahitaezkoa izango da Trafikoko Buruzagitzan azterketa egitea, eta baimena berreskuratzeko, **8 puntu** emango dira.